



ILEROKO ALDIZKARI EDERGARIDUN AITA KAPUTXINOAK ZUZENDUA

—: || 13 Urtea || 1931'ko Uztaila || 151 Zenbakia. || :—

GIZARTIZTI-GAIK (Soziologi-gaiak)



Lana

Lana egitea zer dan ondo dakigu gerentzako, baño lan egitea zer dan inork galde egiten ba-digu, ba-liteke erantzuteko estu ta lafi arkitzea.

Lanari buruz onemen gizar-tiztilari (soziologo) batzuen iritziak: «lan egitea, gorputz edo soin eta gogoaren indafak ezañi ta gauzai egokitasuna ta aldiña (balioa) ematea besterik

eza, onela gauzok gure eginbideak betetzeko gai izan ditezten».

Zeozar egiten dezu, zeregin naiz aundia, naiz txikia, ortik zeretzat edo besterentzat etekiñen (probetxuen) bat ateratzeko? orixe dezu, ba, lana.

Lan egiteko izpideak

Esku lana egiteko onemen izpide (batzuek: A) Lan egin bear da jaki ta janziak irabazteko. Jaungoikoak Askaldi-idaztitan ala dio: «Zure bekokiko (kopetako, izardiz jango dezu ogia». Eta Jaungoikoak berak esaten digu Idazteuneko beste leku batean. «Zure mofoia bidali lanera, alperik ez dedin egon, alperkefia gaiztakefirako bidea da-ta.

G) Lan egin bear da griña edo lera txafak zapaldu ta indargabetutzeko, griña txafok zapaltzeko lana bezalakorik eztago.

K) Lan egin bear da ukar edo limosnak egiteko.

Lanik egiten ez duenak, jateko eskubiderik ere ez dauka, Paul deunak dionez: «Iñork lanik ez ba-du egin nai, bego ori jan gabe» Gañera Paul deunak lan egiteko agintzen du: 1) Len ostu izan duenak, auferantzean ostu beafik izan ez dezan.

2) Iñoren gauzen zalekeria kentzeko: Zeren eskuz lan egizute, nik esan nizuten erara ta iñoren afean era onean ibili zaitezte»,

3) Lan egin bear da irabazpide garbiz ogia irabazteko. «Entzun det, ba,—dio Paul deunak—zuen artean batzuen-batzuk lanik egin gabe urduri dabiltzela berai ez dagozkien gauzetan; bijoaz lanera oiek ere».

Langileak

Esku-lana (izen onetzaz gorputz lana adierazten degu, naiz eskuz naiz oñez, naiz sorbaldaz, naiz mingañez, naiz beste gorpuzkiz egiten den lana izan; egiten duena, langilea edo beargina deitzen degu.

Gizona, bakafik bizitzeko ez baño, lagunakin bizitzeko jaioa da. Gizonak beren beafai erantzuteko bear dituzten gauzak irixteko egin bear duten lana, beren artean banandu egiten dute; ofela guziak lan bera egin beafean bakoitzak berea egin dezan. Onela batzuek arotz edo zurgiñak dira, beste batzuek argiñak, beste batzuek nekazariak, beste bautzuek eunlean, eta abar.

Jesu Kristoren aufetik eta geroz ere luzaroan langileak jopu edo soka-larteko (beren buruaren jabe etziranak) izan ziran; askatasun gabeak, abereen antzean. Baño kristautasunak apurka-apurka jopuen askatasuna iritxi zuan. Gai onetzaz gauza edefa irakufi nai duenak, irakufi beza Balmes'en idazti edefa: «El Protestantismo comparado con el Catolicismo».

Langileak maxtar ziran, edo berdin dana, onak eta txafak bere gain zituzten, jabeai itz-eman eman ez gero; baño jabeak ba-zituan ala ere zenbait eskubide bere langiletan, onela zan gudutzarakoa (gefarakoa)... ta langileak etzezaken alde egin.

Aberastasuna, etekina (probetxua) ta aldiñak (baloreak)

Aberastasuna aberetik omen dator, lenago aberatsak abere (ganadu) askoren jabe ziralako edo; itz onekin nork beretzako bear duen baño geiago duena adierazten degu.

Etekiña befiz gure beafak eskatzen dizkiguten gauzak eskura idukitzeko bidea ematen digun zerbait da.

Azkenean aldiña edo balorea gure ezaguerak aintzakotzat artu ta gizonak ondasuntzat daukien edozein gauza da.

Ondasuna, etekiña dakafen edozein gauza da. Ondasunak jabedun-gai edo jabetu eziñak izan ditezke, onela adimen-indafa, gogo-ona eta.

Lana ondo ta efaz egiteko aldiñik ba-da, egiteko eskua ta ondasuna bear dira.

Lanaren ernalitasuna

Ezer biltzeko, beařena lana da. Bařo lanari batzuek gafantzi (inportantzi) geiegi eman diote, beste batzuek beřiz gutxiegi. Gure ustez onemen egia.

1) Lanak ez dakar gauza beřirik; gaiak ugaritu ta egokitu egiten ditu; gairik gabe lanik ere ez bai dago.

2) Lufeko zitu, emaitz, frutuatarako lana beařezkoa da, lufaren berezko emaitz (frutuatarako) ere nolabait bai beintzat, baita ere tresnazko emaitz edo aberastasunetarako. Garia ta artoa berez ez dira etortzen, baizik eraiteko ta landutzeko lan egin bear da.

3) Lana ekarkořa (emakofa) da gaiak aldatu ta egokiagoak eta etekin-tsuagoak (probetxutsugoak, egiten diralako.

4) Ekarkořena egiteko lenengoz asmatu egin bear da, gero asmatua zuzendu ta azkenean asmatu ta zuzendu dana egitez egin; asmatzea ta zutzentzea adimenari dagozkion lanak dira; egitea beřiz gorputzari dagokiona: ofegatik lenengo biak adimen lanak dira, azkenekoa beřiz soin (gorputz) lana.

Lana, beso-lan utsa izan liteke, edo baita ere lan berezia: arotzarena (zurgiřarena), argiřarena, eta abar.

Lan-banakuntzea

Gizona (len ere esan det) bere beařak estaltzeko bakařik ezta naikoa, ofegatik gizonak antxina-antxinatik lana banatu egin izan zuten. Orain lan-kin beřiaz auřerapen aundiak egin izan dira ta langile bakoitzaren lana ere emakofago egin da. Esaterako, len oskigile edo zapatari *batek* egiten zituan zapatak, orain beřiz, askoren artean. Oraintsu Bartzelonan ikusi nuan onela lan egiten. Batek ořari neuriak artu ta ebaki besterik etzuan egiten, beste batek azpiak josi, beste batek goialdea ipiņi ta josi, ta onela oskiak berealakoan josten zituzten. London'en erloju bat egiteko eun langileen eskuetan banandu egiten da lana.

Lan banandutzearen etekin eta kalteak

Etekiņak (probetxuak) A) Aldi gutxiagoan lan geiago egiten da.

2) Langileak bizkofagotu (trebeago) egiten du.

3) Lana lenago irakasten da, ta berez lanerako lenago egokitzen da ta onela makalen (andre ta umeen) lana ere emankor egiten da. England'en umeak nagusiak bařo ofatz geiago zořoztutzen omen dituzte aldi berdiņean.

Kalteak

1) Langileen adimen indařa uřitu ta gutxitu.

2) Era berdiņean eta leku batean askok lan egitea, langileen osasunerako kaltegarri da.

3) Egileak gauzaren zati bat besterik egiten ez dakielako, nagusiaren menpekoago egiten dira, nagusiarenean ez ba-da, beste iņon lana egiteko naikoa ez dakielako.

4) Emakumeak eta umeak lanerako artzetik etofi ditezken ondore txafak.

(*Dařaike*)

Gorostiaga'tar Eulogi,k

Noletan gero?

I

¿Noletan zure atsegin-jaiia...?

¿Noletan zure zorun-eztaia...?

¿Zer dezu Artzai Ona?

¿Nola zure biotza

¿Nola gaur abeska...?

Maitasun-gañezka...?

Ikus ziñudan mendirik-mendi,

ikus ziñudan ojuka lafi...

Malko sendo garatzak

Naigabe latzen batek

ixil zerorzkizun,

nunbait mintzen ziñdun

Amiltegi ta leize-ondarak

gartu zituen zure negafak...

Xamurtu niñdun zure

joranez zeraikizun

naigabe zorotzak...

urundik biotzak...

Eskutu ziñan tontor-ostean

Txistu ta oju bart-afatsean...

Mendi orpoan beriz

oruka noiz ote zan

zegan artaldia

biurtzen Artzaia...

¿Nola gaur zure malkoen orde

abeska zakust pozaren-popez...?

¿Nola biotz-arantzak

¿Nola bareñ-odeiak

lore gaur biurtu...?

leñuruz ureztu...?

¿Noletan zure-atsegin-jaiia..?

¿Noletan zure zorun-eztaia...?

¿Zer dezu, Artzai Ona?

¿Nola zure abotsa

¿Nola gaur abesten...?

ezi da biurtzen...?

II

Lertu naiezka daukat biotza

agertu da-ta nere bildotsa...

Urundu bazitzaidan

gaizkatu det gaxoa

atzo artaldetik

otsoen mendetik...

Arnas-estuka, odolustua

ilufen zetzan bildots galdua...

Tantoka zerorkion

ta artu nuen lepoan

tantoka... odola

odol zeriola...

Osotu nun sayets-ezufa...

Ufindu lorez ile kixkufa...

Besoetan daramat

beste ardiak ere

maitetsu laztantzen

alaitu ditezen...

¿Nolaz ez egin atsegin-jaiia..?


¿Nolaz ez egin zorun-eztaia..?

Gertuko diot orain

poztu gaitezen denok

bazkari galanta

bazkari au jan-ta...





Lertu naiezka daukat biotza
agertu da ta nere bildotsa...

Nolaz ez gero, seme,
nolaz ez abestu

ilik neukan bildotsa
gaur badet arkitu...?

LORAMENDI.

PADUAKO ANTONIO DEUNA

Antonio Deunaren gaztaroa
(1210-1220)



URZAROKO urteak bere aitaren eta amaren ondoan igaro zituen Perdinandok eta guziz bakunki (biotz bildua). Amabost urtetan, Ulixipona ondoko Bintzentzio deunaren memai edo *konbentuan* sartu zan. Agustindañak ziran memai artako lekaideak edo *praileak*. Ezagutu zuen noski Perdinandok, Jaungoikoaren Amari itzemandako bere garbitasun osoa galzorian arkitzen zala, gizartean gelditu ezkeror; eta mendeko zorapidetik igesi, lekaidetxeko biltasunean sartu zan.

Jainkozko etxe artan sartu zan ezkeror, bere biotza Jaungoikoari ematearen, etzuen mendetarakin artu-emanik batere nai; bañan berak etzitzazken artu-eman oiek oso itzuri, bere sortefian (jayotefian) bizi zalarik.

Askotan joaten zitzazkion etxekoak, aideak eta ezagunak, ikuste aitzakian, beren aundikeri eta uskerizko izketaz mutil gaztearen biotz samufari eragin eta beren artera itzularazteko asmoan. Bañan Perdinandok sendoki goititu, garaitu zituen aien maltzurkeri guziak.

Alare bere gogoari zabartzeko bidea kendu eta bakartasun eta biltasun aundiagoan bizi nairik, 1212 urtearen asieran Koninbrako Gurutze deunaren memaira aldatu zan, bere Nagusien baimenaz.

Bederatzi bat urte egin zituen etxe artan, bere maitetasun, apaltasun biltasun eta otoitz eta bakarzaletasunaz bizi-lagunai jafaibide ona emanaz. Esku-lanik apalenetan ere poz eta atsegin aundiz aritzen zan. Lan tarte guzietan otoitz egiten edo Idazti Deuna ikasten jardun oi zuen. Diotenez Idazti deun osoa buruz ikasi zuen.

Eztakigu noiz egin zan apaiz. Edozeiñetara ere, bere ogeitabost urtetan Pranziskotafetan sartu zanerako egiña zan da, Koninbran egon zan garai ontan egin zan.

Bi gertaera afigafien bidez erakutsi nai izan zuen Jaungoikoak, zer atsegin aundia ematen zion Perdinandoren biotz, maitati eta apalak.

Eri aundi, oso gaizki zegon lekaide bat eta Perdinandori zegokion ura zaintzea. Eritzain gazteak Jaungoikoa otoiztu zuen eta eritasuna etsaiak ekafia zala ezagutu zuen. Joan zan eriarengana, estali zuen bere soñekoaz eta une berean osoro sendaturik gelditu zan.

Beste bein bere eguneroko eginkizunetan ari zala, meza erdiko txintxafi otsa aditu eta belaunikatu egin zan, eliza aldera begira. Une berean eliza bitarteko orma zabaldu zan eta bere begiz ikusi al izan zuen gure Jauna Apaizaren eskuetan eta jauretsi, *adoratu*.

Ereñotzu

JAKINBEARAK

xv

Eriko jayak

Dantza gauza txafa izan afen pekatua izango ote alda ba, urtean bein bakafik dantzatzea, efiko festa edo jayetan dantzatzea? Nola nai dezu nik bayetz esatea. Entzun zazu: Ostutzea edo ebastea, zazpigafen Aginduen kontrako pekatua dala, oso ederki dakizu ezta ala? Galdetuko al didazu ba: Jauna badakit ostutzea edo ebastea pekatu dala, baño emango al dit urtean bein ostutzeko baimena? Ta badakizu zuk, ez nik ezta ere iñork, ez dezakela baimen ori eman, ez ta ala? Zuk ikusi bada zure efiko festa edo jayetan egin bear dezuna.

Efosario Santua.

Zuk diozuna, etzait gaizki iruditzen. Nere us-tez obe litzake efosarioa batean efezatzea, baño ori ezin ba dezute, Ama Birjiñak pozik entzungo du zure otoitza, zatikan egiten ba dezu ere; au da, goizean amafeko bat edo bi: eta atsaldean beste guziak. Ondo egin zazu otoitz eder ori eta naikoa da Ama Birjiñari zure maitetasuna agertzeko.

Besteen eskutitzak idiki ta irakurtzea

S'tar A. O. Nere aizpak artzen dituan eskutitz geyenak idiki eta irakurtzeko oitura artu det. *Gaizki egiten al det?*

Bai, andrea; oso gaizki: ori ez da zilegi.

Batzuetan gurasoak edo bere ordezkariak nagusiak ondo egingo dute beren seme-alabaen edo mendekoen eskutitzak irakurtzen ba dituzte: baño ezta ere beti, baizik edozein susmo txar daukatenian, baño ez zuk, iñolaz ere ez. Gutako bakoitzak geron gauzak ixilian gordetzeko eskubide ori ufatzea pekatua laria ere izan ditekete batzuetan...

Konfesioko gauzak entzutea

Oitura txaf bat artu det Jauna:

Konfesatzera joaten naizen bakoitzian nere belafiazkiak luzatu ta bestiak konfesatzen ari diran pekatuak entzuten egoten naiz *¿Pekatuak audia egiten al det?* Berez, bai pekatuak audia egiten dezu. Konfesatzen daudenak eta konfesanarioak esaten diran gauzak sekretuzko gauzak izaten dira eta zuk ez dezu bestien gauza ixilik jakiteko eskubiderik. Oso gaizki egiten dezu bada gauza oyek entzutian, baño pekatuak audia dala jakin gabe egin badezu orduan txikia egin dezu.

Baita ere oso gaizki egiten dezu modu ortan jakindako gauzak, bestien artean zabaltzen badituzu.

Donostiar Gabriel A.

Padua'ko Antonio Deunari


Olazaran'dar Lizafakoak. Iruñako A. Mikel Agri. eskeñia.

Andante leggiero





Ze-ru - - e - ta - ko li - li

An-do - ni deu-na, zu-re be-so-tan go-za-tsu da-go ze-ru-ko

Jauna, Ze-ru-ko Jauna, a - ren au - re - an atera za - - zu



Estrofa



Ezkontzako Sakramentua



ITA Santuak Ezkontzaz eman duan Agiria, aurreko ilabetetan ikusi dezute.

Baño Sakramentu ontaz Kristau ikasbideak dakarena azaldu gabe ez giñezke gelditu. Ark dakarenez Ezkontzako Sakramentua zertarako dan adierazi baño len, zer dan esan nai dizugu.

Ezkontza zer da?

Eskontza, alkartasun bat da, gizonezko ta emakumezko batek batera egiten dute alkartasuna. Alkartasuna ontako lagunak senar-emazteak deitzen dira.

Senar-emazteak alkarekin aurak izateko eran bizitzeko, aurak azitzeko ta biak beti batera bizitzeko eskubideak eta eginbideak agintzen eta itz-
ematen dizkiote alkari; ora beren alkartasuna zer dan.

Ezkonduak ezkontzaren bidez irixten dute, ba, era ortara bizitzeko eskubidea. Orduan agintzen eta itz ematen diote alkari artara bear-
tzen dutela beren burua.

Bi ezkontidetatik bat iltzen den arteraño irauten duen alkartasuna da. Ezkontza onela egin zuan Jaungoikoak.

Alkartasun baten egileak beren gogoko eginbearak jartzen dizkiote alkari; baño ezkontzan ez diteke onela izan, gizalde osoaren onerako Jnuna sortutako alkartasuna dalako. Geroztik buruzpide ortako eginbearak, ez dezazke gizonak bere gogora aldatu. Jaungoikoaren Legeak eta Elizarenak agindua ezin aldatu da.

Beste alkartasunak uratu ditezke alkartuak nai dutenean; ezkontza, orde, ta onek ematen ditun eginbearak, ez ditezke ausi ezkonduak ala nai ta ere.

Beste alkartasunak ez bezala, alkartasun au santua ta gizonen alkartasun guziak baño begiragariagoa da.

Ezkontzako Sakramentua zer da?

Ezkontzako Sakramentua, Lege Beriko Sakramentu, senar-emazten alkartze legezkoa santu egiten duena, ta aurak irixteko ta ondo ezitzeko grazia ematen duena da.

Ezkontza, Lege Beriko Sakramentu egin zuan Jesu Kristok. Berez eta sortzez ain begiragari zan alkartasuna, bere graziaz aberastu zuan Jesusek; eta buruzpide ortan izaten diran eginbide guzietarako grazia ta laguntza bereai Sakramentu onen bidez eskeñi ta agindu die.

Geroztik katolikoen arteko ezkontzak, sakramentu dira ta beren artean ez diteke sakramentu ez dan ezkontzarik egin.

Sakramentu onen bizigaría beriz, alkari agindu ori ontzat artzen dutela agirian adieraztea.

Ta naiz agindu ta naiz ontzat artu, itzez egiten duten ezker, esan ditek: batak besteari beren burua agintzen dioten itzak, sakramentu onen gaia dirala; ta batak bestearen itza jasotzea sakramentu onen bizigarí.

Sakramentu onen egintzale, ezkontide berak dira.

Sakramentu onen artzale, edozein gizon-emakume izan ditek, iza-tezko legez, Jaungoikoarenaz edo Elizarenaz eragozpenik ez ba-dauka.

Ezkontzaren Ondasunak iru dira: aurak, zintzotasuna ta Sakramentu. Auek zer esan nai duten, ikusi aurtengo Epailako ZERUKO ARGIA'n.

Ezkontzako Sakramentua zertarako da?

Ezkontzako Sakramentua, ezkontzeko ta ezkonduer alkarendako pakearen grazia erdixteko ta Jaungoikoarentzat aurak azitzeko da. (N. K. I.)


Ezkontzako Sakramentuak bedeinkatzen du senar-emazten bizibidea. Onek egiten du beren alkartasuna ezin ausia.

Kristauen ezkontza, Kristo Gure Jaunaren eta Elizaren arteko alkartasunaren irudia da; ta au ausi ez ditek en baño geiago, ez ditek kristau ezkonduena. Bere senpertasuna Sakramentutik datorkio, ba, kristauen ezkontzari.

Sakramentu au bear bezala artzen duen kristauak, berorekin Jaungoikoaren grazia aunditzen du beregan. Jaungoikoaren graziaren iturri berri bat zabaltzen dio bere buruari ezkontzean. Ezkontzako eginbi-deak betetzeko laguntza bereziak emango dizkion sakramentua berekin baitu geroztik. Ortik datorkie ezkonduer alkar ondo artzea, pakean alkarrekin bizitzea.

Ezkonduak Jaungoikoagandik dituzten aurak ondo azi ta ezitzeko ta beren jabeari egunen batez itzultzeko, neke asko eraman bearko dituzte. Ordea, oiek guzietarako laguntza ta grazia, Sakramentu onek damaie ezkonduer.

Jntza'r Damaso Jn.



Bilboko Udal-Etxea. (Galarra-argaz.)

Ettxekoandreak bere umeakiko dauzkan eginbearak

III



ETXEXOANDREAK aztu bear ez duan beste eginbear bat bere umeak zein lagunekin ibiltzen diran zaitzea da, ta zeregin ontan erne ta arduratsu jokatzan ez bada, malko samin-samiñak ixuri bear izango dituala seguru nago.

Gaur egunean gaztedia galtzen ta gaiztatzen ari da, onak gaiztoakin nastuan ibiltzen diralako; oitura txafak baño gaitz eraskofagorik ez bait-da. Gaur egunean jolasetan, batzokietan, joan-etofietan, gau ta egun, goiz ta aratsalde, onak eta gaiztoak, Luzbel'en alderdikoak ta Kristorenekoak guziak elkarfeikin anaitasunez dabiltz zoritxafez, ta ez dago opatzeko litzeken bereixte osasunkorik! Oi nasketa galgafia ta negargafia, odolezko malkoz negar-egin bear genduken nasketa!

Gora-bera aundiko amaren eginkizun bat alaben garbitasuna zaitzea da. Eginbear au lafia da, guraso askok uste duten baño lafiagoa. Ecclesiasticus Liburu Santuak dio: «*Filiae tibi sunt & serva corpus illarum, et non ostendas hilarem faciem tuam ad illas*» Badituzu alabak? gorde zazu aien gorputza, ta ez erakutsi aiei aurpegi alaia» Itz auetatik ateratzen danez, amak zintzo ta erne zaitu beaf ditu bere alabak. Goteuna'k (Espiritu Santuak) agintzen bait-dio, ta bai begitarte (bekozkoa) zimurtu ta beztu ere bere alaben garbitasun lore zuri edefa lasaikeriaren ego-aize kriskalgafia igartu dezakela ikusi dezanean. Lore au, lore eder bikain au, edefa ta zerutafa bezain minbera da, ta efex zimeldu ta igartzen da; pixka bat eskukatuz gero bere edertasuna galtzen du, ta askotan, bere mimiko lefdena buru-makur jartzeko, ukitze bat aski izaten du. Ofengatik, ba, gai onetan erne ibiltzen eta mutilen artetik alde egiten erakutsi bezaie amak bere alabai; adirazi bezaie mutil likits, lasai ta eskugeiren bat urbiltzen ba-zaie, bizkor ta kementsu »noli me tangere» esan dezaiotela: «alde ni ukitzetik!»

Emen esandakotatik efaz ateratzen da, amak nolako egiñalak egin bear dituan dantza lotuetarako gofotoa alaben biotzetan sartzen, oietan garbitasuna afixku izugafian jartzen bai-da.

Oi zein beragafi ta gaitzesgafia dan, gai oni dagokionez, gurasoetan eta alabetan zañak botatzen ari dan axolagabekeria!

Aragizkoak ez ba-lira, Adanen pekatuaren ondorenak gañean ez baleramazkite, iñun afixkurik ez ba-lute, beren buruak gaiztakeriaren kutsakor ez ba-lituzte, ez lirake bestela ibiliko.

Zentzugabe efukafia! Pablo santua baño santuagoak ote dira, gorputza berekin dutela ez sumatzeko? Beren garbitasunaren ontzi auskofa ondaturik

gelditzeko bildurik gabe ibiltzeko; edo alako ondasuna lapufen eskuetan kimatuko zaien kezkarik ez izateko? Ikuskai lotsagafia, negargafia, jantzi nabarmenez estalirik edo beafik gabe gizaki artean beti babiltenena!

Ondurik dagoan gaztaña morkotsetik bezala jalkitzen da esandakoetatik egiteko bat etxekoandrearentzat. Ontzat ezin eman ditezken egiñal gogorak egiten dituztelako gazte askok, ara ta onera gelditu gabe ibiliz, gaur emengo efijaietara, bigar angoetara, orain azoka batera, gero mendigoizaleen txangoetara, egunez zinera ta gauez antzokira, beti senargai bat arkitzeko aitzekian, baña bide ertzean zimeldurik eta loiturik dagoan loreari baño geiago inortxork begiratzen ez diela; ama ta etxekoandre onak oitura oni bideak itxi bear dizkiote; ibilera au oitura on eta garbien ondagafi bait-da.

Baño nola? Lenbizi alabak ongi eziaz; eratsuak izaten irakutsiaz ta bere malekoai dagozkien lanetan ari aziaz. Onela zerbait ezkonsari (dote) izan dezakete ta besterik ez ba-lute, lanerako oitura, etxekoitasuna ta oitura garbi ta izen ona izango dute.

Ezkongaiak eskuartetxoren bat izatea, gora-bera aundiko gauza da; baño au ez da naikoa.

(Jaiaitzeko)





Goñi'tar Julian, Apaiza.



Ondarabiko nexka mutil Kordoidun, Guadalupeko Andre Mariari olerkiak esateko artzai-jantzian jaria. Ezkeretik eskubira: Felizitas Iridoi, Asunzion Iridoi, Kontxita Peña, Pakita Agire, Juanito Iriazabal, Antonia Aretxe, Ignazia Zulaika, Maria Angeles Garzia ta Maria Jesus Garzia.



Ikasi!.. Ikasi!..



Otsoa ta azeria

Leoia animalien efege jauna, eri zegoen bere etzauntzan; eta animalia guziak, batzuek orain, besteak geroago, etortzen zitzaizkion ikustera ta lagun egitera. Azeria ez, uraxe etzan oraino ara agertu.


Otsoa azeriaren etsai aundia zan; ta nondik kalte egingo zion ari baitzan beti, orain artarako eskai ona bazuela iduritu zitzaion. Joan zan bada leoi jaunagana ta azeriaz gaizki-esaten asi zan: «Jauna, suak-arturik jartzen nauen gauza bat adierazi bear dizut; gure artean dan piztirik ezerez eta kaxkafenak, azeriak zein lotsa gutxi erakusten dizun ikuste, a ez al da asafetzeko ta sumintzeko?

Oartu naizenez, animalia guziak etofi zaizkitzu ikustaldia egitera, azeria ez beste guziak. Alazinkoa! Nik emango diot lotsagaldu aferi merezi duena. Ori al da gure efege jaunari egitekoa? Ori al da Jainkoak emandizkigun jaun ta nausiei dagokiñen lotsa ta begirunea ta maitasuna? Baña bego, bego; nik nere eskuz emango diot azeri zirtzil ofi merezi duen ordain-saria, nik erakutsiko diot bere eginbidea obekixago betetzen».

Otsoa ofela mintzo zala, ara non agertzen dan azeria, ixil-ixil iñor oartu gabe. Leoiari ikustaldia egitera zetofen bera ere. Otsoak bere kaltetan esan zituen guziak ederki entzun zituen.

Azeria leoiaren zulora sartu zan, ta leoiak ikusi zueneko, aurpegia ilundu zitzaion, asafezko ofo ikaragafia egin zuen ta asma alako irain guziak esan zizkion azeriari:

«Agertu aiz noizpait ere, pizti kazkar, zirtzil, eskerbeltzeko ori, agertu



Abadea ikusi orduko
Mikeltxo negafez or dago

IKASI!.. IKASI!..

I.—Kaskamotx dago lo gozoan...
Zerbaiten otsa antxe ondoan.

II.—Zeren otsa da nere gelan?
Nagoan erne, zer ote dan!

III.—Auxe dek lana, bertan zegok;
Baño bai ni're, gertu negok.

IV.—Onatx zapatak, erori aiz;
gizon ernea beafik naiz.

V.—Ortxe efetzen aut, to irea!
Dirua nai dek? to nere.

VI.—Baño, Kasxamotx, zer egin dek!
Ispilua autsi... Mauka or.dek!

Erne izatea, bai mesede! Ikaratia, bere kalte.

aiz? Onen aspaldi dek eri, ezindua, oean etzana nengoela; gañerako animala guzkiak etofi zaizkidak ikustera ta laguntzera; i bakafik onen denbora luzean ez aiz neregana agertu. Nere atzapafetan artu ta txiki-txiki egitea mereziuke lotsagabe ofek».

Baña azeri maltzurfak, biotza erortzera utzi gabe, apal-apal auxe erantzun zion:

«Jauna, utzi bezait itzegiten ta nere aitzakiak ateratzen, eta berofen asafea gozatuko dala uste det. Ikusiko du ni berofen mendeko ezdeusena, kaxkafena ta xirtxilena banaiz ere, eznaizela eskergabeena. Ikusiko du beste inork baño geiago nai dedala nik berofen osasuna.

Beste animala guzkiak bezela, laster ikasi nuen nik berofen gaitzaren befa; eta joan dan aldi onetan berofen aufera agertu ezpanaiz ere, ez uste izan berofetaz axolik eznuela, ez uste izan alpefik egon naizela. Ez orixe; bereala asi nintzan berofen gaitza sendatzeko bideak bilatzen; munduz-mundu ibili naiz, gure artean diran animalirik zuur eta jakintsuenai galdegin diet, zer bide izango litzaken oberena, berofi lengo osasuna itzultzeko, nerea baño naiago dedan osasun eder ori berofi befiz itzultzeko. Eta guzkiak ago batez auxe erantzun didate: Berori bereala sendatuko dala, len baño ere obeki geldituko dala, baldin otsoa bizirik lafutu ta aren lafua, oraiño-bero da-goela, jantzi egiten badu».

Leoiak ori aditzean, otsoari atzapafak bota zizkion, iges egiteko astirik eman gabe ta gufu batean bizirik lafutu zuen, aren lafua jazteko, azeriak esan bezela. Orduan azeriak ifi ta iseka egiten zien otso ilari esanez:

«Ongi zeagok, ederki egin zaik. Zertako ari izan aiz nitaz gaizki esaten? Erofek il dek ire burua ire mingain lotsagafi ofekin. Gure nausiaren aurfen nitaz ongi esatea aski uen, ta nik ere beste ofenbeste egingo nian itaz. Ederki irabazia dek egin zaikena».

* * *

Kristaua, kontu zure mingaiñari. Ez inortaz gaizki esan, besteari baño kalte geiago egiten diozu zere buruari.

Besteak zu maitatzea nai badezu, maita itzatz lenik zuku ere besteak zutaz ongi esatea nai badezu, ongi esan zuk ere aietaz.

Urtsuya

IL-BEÑIAK

Zeruko Argia'ren arpidedun zintzo ziran auek Jaunaren besoetan azkene-ko loak artu ditu:

Aranzazun: Raimunda Unzueta.—**Pasai Antxoan:** Josefa Lopetegi.—**Lazkaun:** Josefa Insausti.—**Bilbon:** Rikardo Sagarminaga.—**Alzan:** Joakin Aizpuru, Apaiza.—**Bera Bidasoan:** Maria Nesprias; Manula Irazoki; Juan Joxe Irazoki; Maria Santos Etxebefia; Joxe Angel Agife. **Zubietan:** Katalina Ansorena.—**Orion (Gipuzkoa):** Felipe Beloki.—Joxe Maria Eizagife.—**Zubietan (Gipuzkoa):** Dolores Artola, Amunafiz'en Alarguna.—**Erezil'en:** Eustakia Saez.

Betiko atsedeno amaiezu, Jauna. Eta betiko argiak argitu bitza.

Beude pakean. Amen.

Neketako Ama-Birjiñaren Irarkolan. Iruña'n